

## **GERO LIBURUA ERRETORIKAREN ARGITAN (Aurkezpen modura)**

1997-03-10

*Patxi Salaberri Muñoa*

Gure berbaldiaren hari nagusiak burutu berri dugun ikerlanaren aurkezpena mugatu beharko balira ere, ez genuke hitz egiten hasi nahi gaiaren hautaketa eta garapena ulertzeko funtsezko deritzogun zerbait aipatu gabe; izan ere, lan honen izenburuak berak planteatzen dituen galderen zentzua argitu behar baita lehenik eta behin: zer dela eta aukeratu da Axularren *Gero* liburua? eta, bigarrena, zergatik “Erretorikaren argitan”?

Hasi, beraz, lan honek Axularren obraren funtzionamendua ezagutzeko kezka pertsonal gehiegi zehaztugabeko batean duela bere jatorria aitortzetik hasi beharko genuke. Egia esan, aspaldidanik susmatu eta pentsatu izan dugu ez ote genituen urdazubierra eta haren obra bigatasun antitetiko batetik aldataritzen eta, inkontzienteki nonbait, infernuratzen aldi berean. Aldaretara jasotzeko arrazoiak linguistikoak edo izan ditugun bitartean, beste alorretan inplizituki eraman den jokabide isiltzailea ozenki mintzo izan da haren literatura baloreen ustezko eskasiaz eta, ezbairik gabe, haren obraren inperfekzio usteaz. Hona hemen horren adibide gisako bat, alegia, kritikari gehienek *Gero*-n usnatu uste duten barne-anabasak berak ezinezko bilakatzen bide zuen Axular bezalako erretore perfektu bat —eta uler bedi “erretore” hitza apaiz eta erretorikan iaio modura— edizioaren erantzuleztat hartzea.

Denboran eta, noski, Axularrek idatzi orrialdeetan barrena aurrera egin ahala, kezka hutsa zen hura sarartuaren prosa eta estiloa aztertzeke premia bihurtu zen guregan, haren prosaren funtzionamendu estetiko eta literarioa eza-zatzeko eta azaleratzeko premia hain zuzen.

Eta “premia” hitza darabilgunean, osagai objektiboa duen beharra azpimarratu nahi dugu berariaz, izan ere, gure literatura zaharraren ikerketen egocoraren aurrean ezinbesteko baita hasierako testu haietara begirada lehenbailehen zuzentzea, eta, ahal delarik, arretaz zuzentzea. Gure prosazko literatura erlijiosoan klasikitat ditugun egileen “balioztapena” ez da bakanka baizik —eta badakigu zeharo baiezen bortitza dela esaten ari garen hau—, ez da bakanka baizik literatura irizpideetatik planteatu; are gehiago, esango genuke ondoko hizkuntza nagusietako literaturen kantitate eta kalitatearen lilurak eragotzi egin

izan digula luzaroan gure apurraren oinarrizko literatur azterketa bera ere. Hein handi batean, *a priori* gisako hipotesi patetiko akonplejatuak —eta “patetiko akonplejatu” hitz bikotea erabiltzen dugu gure ahuleziak tapatzeko jokaera gizatiarra bainoago geure literatur tradizioa ez ezagutzeko ahalegin subkontzientea adierazten duelako—, hipotesi horrek, berriro diogu, beste hizkuntzetakoe-kin “konparagarriago” eta “homologagarriago” edo zitezkeen arloetara bideratu izan du ikerkuntza oro har.

Euskal Literaturaren historiaz diharduten liburuekin borrokatu duenak dakin legez, irakurketa eta interpretazio parametro nagusiak irizpide linguistiko hutsetatik burutu izan dira prosa arloan. Horrezaz gain, maiz asko prosa-lan gehienen “literaturtasun” gabeziaren susmoa obra guzti-guztietara hedatuz, printzipioz hizkuntz balio hutsak zirenetara mugatu izan dira analisi-kriterioak.

Nabarmena zen, beraz, ohiko azterketen alderdi erabat “gramatikalizatueta-rik” alde egiteko premia zegoela eta nabarmena zen, era berean, Axular bera izan zitekeela eginkizun hartan aritzen hasteko aproposena. Batik bat, dena esan dezagun, itzulpen huts eta itxietatik aldegiten duen lehen autore ezaguna dugulako, askatasunez jokatzeko duen lehena.

Pertsonalki, Aita Villasantek ezin garbikiago isladatu zuen gure egoera *Euskararen auziaz* liburuan (1988). Honela zioen:

“Gazte batek galdetu zidan behin: Axular-en *Gero*-ri buruz nahi nuke egin neure tesia; baina *Gero*-ren zein puntu gomendatuko zenuke zuk aztertzea? Erantzun nion: Axular-en *Gero*-n ageri den prosa egiteko modua. Eta ez Axular bakarrik. Euskalki guztietako gure prosista zaharrak aztertu beharko genituzke, ahazturik dugun geure tradizio zaharra bir-aurkitzeko” (154 or.).

Axularren obra ikuspuntu ahalik eta literarioenetik aztertzeke erabakiak obraren planteamendu estetikoaren funtzionamenduaz galdetzeraz eraman gintuen, argitu eta frogatu beharra baitzegoen noraino mintza gintezkeen literaturaz eta estetikaz alde guztietatik xede eta izaera zeharo erlijioso-pragmatikoa erakusten zuen hartan. Helburua, beraz, Axularren prosa aztertzea izan da, betiere idazleak komunikatu nahi zuen mezuaren egituratze orokor gisara eta obran azaltzen diren eduki eta funtzioen ikusmiran izanik.

Esan gabe doa esfortzu edo ahalegin honetan gure aldetik inolako meriturik ez duen ausardia antzekorik ere izan dela; baina ezer erakustekotan, gure inkontzientzia hutsa erakutsiko zuen ausardia litzateke hau. Gurekin itsasoratu zirenak itsasaldiaren arrisku eta gabeziez zeharo kontzienteak baziren ere, aitortu behar dugu lanean aritu ahala ohartu ginela hasberri iñozo izateari zor geniola beste ohartuagoren artean ausardia gorriari egotzi ohi zaiona.

Bat-batean, itsas bortitzak jaurtiki ohi dituen uhintzarren antzera agertu baitzitzazkigun arazo-eragozpenak trumilka: gure ikerketa klasikoaren ainguraketa filologiko-historikoa, hipotesi hutsak gairatu beharko lituzketen literatur sistema interpretatzaileen ahulezia, dokumentazio eskasia, hutsune historiogra-

fiko gaindiezinak, orduko egoera sozio-literarioa gutxieneko fidagarritasunez ezagutzeko ezintasuna (besteak beste, zitekeen irakurleriaren oinarritzko ezau-garriak eta obren errezeptiorako baldintzak, euskarazko edizioen gora-beherak, ale kopuruak eta beste hainbat puntu behar bezala ez ezagutzea); horrekin batera, obren urritasuna (batik bat prosazkoen artean, eta, modu berezian, idazlearen edo egilearen “jenioa” adieraz zezaketenean), geratu zaizkigun obren barne-arazoak berak, etab., etab.

Axularren hitzak parafraseatuz, bazirudien ezen asko behar zatekeiela arrazoin mordo hura “ene gibelatzeko eta geldi arazitzeko ere”. Baina Axular aitzindari eta eredu harturik, geure egin genituen haren ondoko hitzak ere eta “ene kontra zirudien arrazoin hunek beronek ni esportzatzen eta aitzinatzen ninduen, hunek bihotz emaiten zerautan”.

Guztiarekin ere, edo agian horrexegatik, aitortu behar dugu atzera egindako bidai moduko honek apasionatu eta, neurri handi batean, irentsi egin gaituela denboran zeharreko tunelaren antzo. Erantsi nahi genuke, halere, lan hau burutu bitartean inoiz ez gaituela ezein asmo ikonoklastak bultzatu, ez eta idolatriak ere gidatu. Izatez, uste dugu lanak berak apasionatu gaituela eta ez maiz asko autore zein obrekiko ohi diren fobiak edota zaletasunak; eta, horrela, ahalik apalen eta behar uste zituen ahalegin, denbora eta arreta eskaintzen saiatu izan gara Urdazubiko seme zinez handiaren obra eta prosa ikertzen. Eta hemen da lan horren zitua.

Baina harira gaitezen!

Oro har, planteaturiko ikerkuntza hau bidera zezakeen irizpide nagusia eta giltzarria Axularren obraz egindako errezeptioan eta bestelako argumentu historiko-literarioetan oinarritutako hipotesian zeutzan batik bat. Izan ere, Axularrez ezagutzen genituen gutxitxo guztiek haren idazteko modua eredu erretorikoetan oinarritzen zela pentsatzera bulkatzen gintuen eta horrela planteatu genuen lan honen hasierako hipotesia. *Gero*-ren errezeptio-moduak berak ere areagotu egingo zuen ikuspuntu erretorikoa analisi metodo egoki gisara, Axular eta haren obra, bai ahozko tradizioan nola bestelako lekukotasunen bidez (urdazubiarraren prestakuntza klasiko bera barne), betidanik irudikatu izan baitira fenomeno erretorikoari bereziki lotuta, **pertsuasiora bideratutako** “ars de bene dicendi” delakoarekin hertsiki lotuta alegia.

Era berean, obraren irakurketan barrena etengabe agertzen diren Erretorikaren berezko baliabideek, hau da, *logos*, *ethos* eta *pathos* direlakoekin zerkusia duten *irakatsi*, *atsegin izan* eta *mugarazi* aditzek bete-betean hartaratzen gintuzten izaera aszetikoko obra honen analisirako.

Ildo horretatik, nabarmen geratu zen hasiera-hasieratik eginkizun honetan nekez mintza gintezkeela funtsean eta oinarrian planteamendu erretorikoa izan zuen prosaren azterketaz Erretorikak berak eskaini ohi dituen tresnak baliatu gabe.

Aurrerago lan hipotesiaren egiaztapenak erakutsiko zigun bezala, ez ze-  
goen Axularren egitekoa eta haren prosa ulertzeko perspektiba egokiagorik.  
Orain ere komentzuturik esango genuke ikuspuntu erretorikoa dela Axularren  
obrak onar dezakeen analisi-bide egoki bakarra. Baina planteamendua area-  
gotuz, eta lana burututa izateak eman ohi duen ikuspuntu orokorretik, irmoki  
azpimarra liteke Erretorikaren perspektiba Axularren obra parametro literario  
eta estilistikoetan kokatzen hasteko abiapuntu bakarra zela.

Funtsean eta finean, hori demostratzea eta frogatzea izan da ikerlan honen  
guztiaren erronka.

Nolanahi ere den, jakin, aldez aurretik genekien metodologikoki testuaren  
argitze-tresnatzat hartzen genuen Erretorikak ere bazituela bere mugak, eta ez  
nolanahikoak edota ondoriorik gabeko teoriko hutsak, Kibédi Vargaren lanek  
eta beste hainbatenek erakutsi bezala.

Batetik, Erretorika printzipioz *berbaldiaren* artea dela ahazten ez bada, ba-  
zegokeen alderik *testu* bihurturik agertzen zen ahozko hitzarekin, batik bat tes-  
tuaren isokronia ezak sortarazten dituen mezuaren zentzu anbiguotasun eta ara-  
zoengatik; jakina denez, horiek areagotu egiten dira Erretorikaren bidezko  
azterketa testua idatzi zenetik 300 urte beranduago egiten denean.

Bestetik, ezaguna da erretorikaren mugak eta ezintasunak testu-azterketa-  
ren esparrura bertara iristen direla, metodologikoki ezinezkoa baita inolaz ere  
azterketa erretorikoa ez zehatza ez erabatekoa eta osoa izan. Ohiko kontsi-  
derazio metodologikoei jarraikiz, esan genezake azterketa erretorikoa ezin ze-  
hatza izan daitekeela baliabideak, hau da, terminologia bera zenbaitetan lausoa  
delako, zehaztugabea, anbigua; besteak beste, esapide bat aldi berean *irudi*  
edo kategoria estilistiko desberdinetan sailka daitekeelako. Era berean, ez di-  
rudi azterketa erretorikoa *erabatekoa* eta *osoa* izan daitekeenik, mugagabe luza  
baitaiteke erabilitako edo erdi-izkutatutako argumentuen azterketa, emozioena  
eta bestelakoena.

Edonola ere, eta eragozpen metodologikoak ondo gogoan harturik genituen  
arren, Axularren obraren sorkuntzaren deskribaketa eta analisiari aurre egiteko  
modu egoki bakarra iritzi genion erretorikarenari eta horrela abiatu ginen lan-  
nean, metodologikoki, egileak egindako idazte-bidea alderantziz ibiltzera bul-  
tzatuko gintuen planteamendua saihestuz eta nagusiki aribide deduktiboan oi-  
narrituz. Izatez, metodo honen arriskuak gutxiestekoak ez badira ere, oro har  
testu mota aszetiko hauetan aski garbi finka daitezke egilearen intenzioak  
—ageri-agerian baitaude mezua eta asmoak— eta, era berean, errazkiro “egiaz-  
ta” daitezke baliabide eta prozedimendu erretorikoen egokitzapena eta egoki-  
tasuna.

Horrela, analisisian Axularrek jarraitutako bide erretorikoetatik barrena abia-  
tzea eta, neurri batean behintzat, berreraikitzea izan da gure eginkizuna. Ibilaldi  
horretan Erretorikaren lehendabiziko hiru atal kanonikoetan eman izan dira

urratsak, hau da, prosaren sorkuntzarekin zerikusi estu-estua dutenetan hain zuzen: *inventio*-tik hasita *elocutio*-raino, *dispositio*-tik iraganik eta ahaztu gabe *actio* delakoak ere izan zezakeela eraginik haren prosan.

Luze joko luke burututako ikerlanaren taxuzko laburpena egiteak, eta ez gara horretan arituko, ez baita hau horretan hasteko toki aproposena. Alabaina, gogo onez saiatuko gara aipatu atal kanoniko hauen azterketatik zitu gisa atera direnak harilkatzen.

1. Funtsean buru-lana den *inventio* atalak, liburuaren oinarrian dauden materialaren berri eskaintzeaz gainera, egilearen arrazonamendu motaren berri ere eskaintzen digu. Eta honako puntu honek berebiziko garrantzia izango du irakurleari dagokionez, izan ere haren maila eta tasun intelektuala erakustez gain, harengan sortu nahi diren emozioen erakusle ezin hobea izango baita.

Obra osatzeko materialei dagokienez, liburuaren planteamendua Axularrek azalean bertan aitortzen duenaren ildotik doa bete-betean: “Eskritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik ... bildua” dioenetik, alegia. Jakina, *Gero* obraren aniztasun tematiko-argumentala hasierako premisa horren ondorio hutsa baino ez da izango.

Aniztasun eklektiko hori, dena den, ez da agortuko iturrien atalean, nahiz eta horretan ere orain arte baino “demostratuago” geratu uste den gazteleraz ziharduen aszetikarekiko dependentzia, Granadakoarena besteak beste.

Era berean, autore klasikoaren kasuan eta idazle erlijioso ospetsu gehienenean ere, nabarmena izango da bitarteko testuen erabilpena, bitartekaritzaren bidezko irakurketarena hain zuzen. Baina hemen ere azalean bertan aitortuta-koaren ildotik doa Axularren uzta.

Bestalde, ikuspuntu ideologikotik eta *aptum* delakoari begira oso garrantzitsua izango den jokamoldea erakutsiko du Axularrek *Gero*-n, herri-jakituraren aldeko jokamoldea hain zuzen. Bibliako obren artean egindako hautaketak, esaterako, agerian uzten du liburuaren irakurlearen mundu-ikuskerarekin bat egin nahi duen planteamendu gnomikoa.

Obraren azterketaren aldetik, arazo gehiago sortu ohi du bigarren atal kanonikoaren azterketak, materialaren ondozkatze eta antolamenduaz diharduen *dispositio* delakoarenak hain zuzen. Egia da atal honetan burutzen den operazio erretorikoak printzipioz ez duela ideien eta hitzen gainean ezelako eragin zuzenik izaten, ez bada antolamenduaren zeharkako eragina. Testuan zeuden argilunak eta arazoak medio, ordea, derrigorrezko iritzi genion *dispositio*-ari aurre egiteari. Besteak beste, eta adibiderik maiseatuena baino ez aipatzeko, Axularren obraren izaera anabastuaz iharduteko eta argitzeko aukera ere eskaintzen zigulako.

Metodologiaren ikuspuntutik zail da jakiten noiz gertatzen den *dispositio*-aren unea; eta *inventio* eta *elocutio*-ren arteko loturak eta jauziak ia etengala

bekoak badira ere, ez da berdin gertatzen bigarren atal kanoniko honekin. Prezeptibaz den bezainbatean, ezaguna da eremu honetan ez dela normalean aholku gutxi baino izaten, irakurleria-entzuleriaren hunkipen arlora zuzendutakoak eskuarki: hasierak edo exordioak eta *peroratio* izenekoak, eta tartean argumentazio ereduak. Eta hain zuzen, horietxek izango dira Axularrek ere ongien zainduko dituenak, irakurlea hunkitzeko eta haren jokamoldea aldarazteko baliabideak modu berezian tratatuko baititu.

Testuratu bezain azkar, alabaina, sortze edo *inventio* atalean ikusitako “eklektizismoaren” islada antzemango da *dispositio*-ari dagokion egituraketaren esparruko lehenengo maila batean, batik bat gaien antolamenduari legokiokeen nahasmendua. Intxauspek eta Lafittek besterik uste bazuten ere, Axularren testu-antolamenduaren “anabasa” horren oinarrian, neurri handi batean, kapituluaren bideratzaile gisa agertzen diren jatorri desberdineko testuak daudela pentsa liteke. Gainera, egungo “koherentzia” irizpideak ez du derrigorrez ordukoa bezalakoa izan behar, are gutxiago “koherentzia” logika kartesiarraren ildoko zerbait dela pentsatzen bada. Eta ez da gogoratu behar —eta barka bedi arinkeria— Descartes Axularren garaikide izan zela. Gure lan honetan erakutsi bezala, Axularren liburuak ongi gaintitzen du “koherentzia”-ren froga, eta, edozein modutan ere, ez garaiko liburuek baino gaizkiago.

Ildo horretatik, testuan sakabanaturik antzematen diren iturri desberdinetako pasarteak eta testuaren tonu errepikakorra bera direla eta, zenbaitetan areagotu egiten da logika faltaren inpresioa. Guztiarekin ere, gabezia hori egituraren baino lehenago sormen-lanaren linealtasunaren faltan bilatu beharko litzatekeela ondoriozta genezake.

Paraleloki, eta kapituluaren edo multzoen barne egiturari gagozkiola, klarki geratu uste da Axularrek predikariaren ohiko egituratzeaz tindatu zituela obraren unitate desberdinak, atalek “tesia-garapena-amaiera” eskema sermonarioari jarraituko ziotelarik. Eskema honetan *exempla*-ren atalak berebiziko garrantzia hartuko du argumentazioaren garapenerako.

Eta argumentazioaren hariari helduz, bereziki nabarmendu nahi genuke arrazonomenduaren antolamendu orokorrerako Axularrek darabilen metodoa. Izan ere, egilearen intenzioak ahalik denbora gehien gordetzen zituen metodo analitiko-sokratikoak ez bezala, urdazubiarraren metodo sintetiko klasikoak hasieratik beretik uzten ditu asmoak eta xedeak agerian, obrari eskaini nahi dion izaera bera ere ezinago nabarmen utzirik. Prozedurak ere berezkoak izango ditu: tankera ezberdinetako argumentuak nahasi gabe aurkeztuz, argumentuak areagotzera daramaten gradazioak erabiliz, anplifikazioak, etab.

Jakina, honaino iritsi ondoren, ez dirudi azpimarratu behar denik Axularren predikari prestakuntza eta lanbidea aipatu eskema horren hautaketaren oinarrian bertan daudela. Baina eskemaz gain, ohartarazi behar da obraren planteamendu orokorrean ere “predikari” agertzen dela Axular: gauzekiko egokitzapen mota, taxuzko iruditeria, hizkuntza biunibokoa eta inolaz ere ez

ekibokoa (sinonimiak erlazio biuniboko hori areagotzeko ere balioko luke, ez bakarrik elementu erretoriko gisa, zitekeen bigarren zentzua arbuiatzeko), etab.

Baina horrela, literatur planteamenduekin eta prosaren izaerarekin ezin esango loturik doan alderdi elokutiboraino iritsiak izango ginatke.

Artikulu honen mugak erraz gaintuko lituzketen xehetasunetan sartu gabe, Axularren prosak erakusten duen erritmo bikoitza nabarmendu nahi genuke lehenik eta behin. Batetik, erritmo argumentatzailea izango genuke, luze eta pausatu samarra, erretorika klasikoaren ereduak eta konparazio egituren bidez garatua; bestetik, *ecclesiastica consuetudo* delakoaren ildotik abiatuko den prosa latza baina bizia, perpaus motz eta itaunketa modukoekin osatua, irkaurrearen baitako sentimentuetaraino iritsi nahi duena. Bien arteko uztartze eta konbinaketaren fruitu izango da *Gero* liburuaren hitz laua. Guztiarekin ere, erritmo horren funtzionamendua borobilagoa-edo izan dadin ez da faltako Axularren prosan erritmoaren areagotzaile eta orekatzaile bihurtuko den baliabide errepikakorrik.

Esan gabe doa: irudi eta baliabide horiek argumentazioaren indarra areagotzeko elementuak izango dira, baina estilistikoki ere prosaren edertasuna izango dute helburu; irakurlea *era eder* batean *hunkitzea* bilatuko dute, eta horrela, balio estetikoak eta afektiboak uztarturik agertuko dira.

Oro har, esanenez *elocutio*-aren atal honetan datzala Axularren ekarpenik gogoangarriena. Izan ere, Axularrek erretorika eklesiastikoak aholkatu-riko baliabide garrantzitsuenak erabiliko ditu sistematikoki, baina, aldi berean, azpimarratzekoa da berak darabilen prosa-hizkuntzaren arabera taxutuak izango direla baliabideok, euskararen senaren arabera taxutuak, hain zuzen.

Edergarri horietako nabarmenenak paralelismoaren formetara biltzen direnak izango dira, hau da, hitzen, hotsen, forma eta egitura sintaktikoen, karentzia erritmikoen, eta abarren ezarpen paraleloak. Horren ondorioz, berbal-diaren osagai argienak eta, aldi berean, “entzungarrienak” isokolona eta fenomeno homofonikoak (homioptotona, besteak beste) suertatuko dira. Sinonimiaren erabilera erretoriko aplikatzaileak ere prosaren erritmoaren erregulazte-funtzioa izango du *Gero* guztian.

2. Nolanahi ere den, ezin ahaz daiteke idatzizko literaturaren historian Axularren ekarpena ohiko esparru erretoriko hutsetik harantza ere badoala.

Lanean demostratu den bezala, oralitatearekiko lotura estua duen testua utzi zuen Axularrek idatzirik, izan ere garbi baieztu baitaiteke haren prosaren ezaugarriak “predikagarritasun” kontzeptuari atxikiak sortu zirela. Horrezaz gain, eta baldin obra-igorlearen planteamenduan “predikagarritasuna” baze- goen testuaren garrantzizko bideratzaile eta faktore bezala, mezu-hartzailaren konfigurazio kulturalaren ikuspuntutik ahozkotasan mistoaren fenomenoak ere berebiziko garrantzia hartuko zuen, finean irakurleari ozenki irakurria izateko testu alde zuretik berbalizatua eskaintzen baitzaitzaion.

Era horretan, zinez ondoriozta daiteke abiapuntua eta baliabidetegia izan zela erretorika urdazubiarrarentzat, eta oralitatea, ahozkotasuna diskurtsoaren egokitzapenerako egiazko irizpide praktikoa. Horrela ulertzen da, esaterako, erretorikak ahalbidetzen dituen “ahozko” ezaugarriak areagoturik eta azkenearaino aprobetxaturik agertzea Axularrenean. Jakina, aldi berean eta elementu antitetiko eta kontraesankor bezala, ahozkotasunak berezko duen jarioa eta “naturaltasuna” erretorikaren artifizialtasunak irentsiko du. Dena den, oratoria eklesiastikoak eskaini baliabideetatik gogokoen eta erabilien izango zituenak irakurlearen ikuspuntutik testuaren egokitzapen naturalena eman ziezaioketena izan ziren.

Historikoki ez dirudi harrizkoa izan behar duenik ahozko eta landua zarteko joera horrek, are gutxiago planteamendu horien presentziak euskal prosaren hasieretan, izan ere ez baitira bestez mintzo garai hartako kulturaren bideak eta inguru hauetako tradizio ideologiko-kultural garailea. Handik isurtzen diren baloreak, mezuak eta bestelako bitarteko kulturalak, estilistiko-literarioak zein irudimenezkoak sorkuntzarako baliabide eta bide ziur bakar bilakatuko dira ezinbestez eta, horrexegatik hain zuzen, ohiko bihurtzen joango dira prosan.

Ildo horretatik, Axularrena ahozkotasuna ezin alhora dezakeen prosatzat jo behar da, eta neurri beretsuan, idatziaren eta ahozkoaren arteko zubitatzat. Ezaugarriak ez dira falta: liburuaren planteamendua erabat pragmatikoa eta ez-erreflexiboa da (ez da arazo erlijioso-teologikorik planteatzen), katolikoki bizitzeko pautak baino ez baitira; baliabide estilistikoak: erritmoa (bertso antzeko pasarte neurtuak, etab.), homofoniak, similikadentziak, etab.; mezua zabaltzeko errekurtsioak: irudi grafikoak, errazak (herri kulturarekin bat dagitenak), historiak, pasadizoak, erreferentzia gnomikoak (errefraua, etab.); Bibliaren erabilera ere ildo gnomikotik abiatuko da: proberbioak, salmoak, etab. Ikusten denez, ahozkotasunaren presentzia nabarmena da bai tematikoki (gatazkarik gabeko formulaziopeko gai errazak), bai forma aldetik (irudiak, edergarriak, erritmoa, etab.).

Azpirarra dezagun, dena den, prosa-liburu honetatik isurtzen den ahozkotasun lurrina euskarri idatzia eta inprimatua etengabe darabilen ahozkotasun motarena dela oro har, oralitate misto-sekundarioaren mailakoa, Zumthor-en hitzetan.

3. Baina ez genuke aspergarri suertatu nahi eta ez ditugu hitzok gehiegi luzatuko. Horregatik, honen guztiaren aurrean, eta obraren originaltasunari eta Axularren ekarpenari buruzko balorazio orokor bat egin beharko balitz, zalan-tzarik gabe esan beharko genuke Axularren *Gero* guztian *ikuspuntu erretorikoa* dela izaera aszetikoko mezua inguratzen duen faktore nagusia, hala planteamendu formalari dagokionez nola prosaren tratamenduari. Ildo horretatik, sarartuak darabilen formulazio erretorikoa, urte haietan gazteleraren esparruko *oratoria eklesiastikoan* teorizatzen zenarekin tinko lotua dago eredu nagusietan, ohikoak ziren ezaugarriak Axularrek ongi jasotzen jakin izan zuelarik, hala

nola gaia, argumentazio mota, egituratze ereduak, esenpluak, irudiak, etab. Nabarmentzekoa da, era berean, nola heldu zion *latinezko tradizioko erretorika eklesiastikoari* funtsezko baliabideetan eta nola egokitu eta erabili izan zituen garrantzizkoenak, betiere *ahozkotasunaren* ikuspuntu orokortzailea eskura zuelarik.

Egia da ondoko hizkuntzetako prosa-parametroekin erkatuz gero, Axularrek hizkuntza horien ereduatarantz jo izan duela maiz asko, baina betiere euskararen eta orduko euskal herriaren mundu-ikuskeratik hurbilen zeuden baliabide morfo-sintaktikoak, semantikoak eta kulturalak egokiro baliatzen. Guztietatik, ahozkotasunaren fenomenotik hurbil dauden baliabideak izango dira *Gero*-n nabarmenenak, eta entzungarrienak, jakina. Baina estilistikaz honatago ere, elementu foniko-erritmiko horiek ezin aproposago bihurtzen dira honelako testu aszetiko batean, batik bat irakurlea ahozkotasunaren parametrotara ohitua denean.

Literario bihurtuaz joango den prosaren finkapen-prozesuan, Axular izango da, beraz, hizkuntz egokitzaille, moldatzaile eta, finean, egiazko sortzaile. Eta Axularren obrak dakarren tematika berria ez bada ere, egia da euskaraz bizi zen gizarte haren barnean, *Gero* liburua “mezu aszetiko tridentiarra” itxura berrian ekarri zuela. Horrela, bitarteko egokiak erabiliz, prosa “berezi” baten sorketa etorriko da Axularren eskutik. Berezia diogu, darabilen hizkuntza laua eta, aldi berean, erritmikoa delako, arazorik gabekoa, onatu errazekoa, mezua ongi ulertaraztea ahalbidetuko duena, eguneroko “arruntasunetik” hurbila, sintaktikoki zuzena eta lexikoaren aldetik ere argia eta ez polisemikoa delako eta, jakina, afektiboki irakurlearen hunkipena eta jarrera aldaketa ahalbidetzeko modukoa.

Horretan guztian letzake nagusiki Axularrek Historia txikian eta Historia handian zehar izango zuen ospearen zioa. Horretan guztian leutzake nagusiki Axularrek herritar alfabetatugabeen artean ere ondoko hiru mendetan jasoko zituen prestigioa, ohorea eta itzala. Eta horretan guztian datza, zalantzarik gabe, egun Axularrek Literaturaren Historian duen toki berezi eta garrantzitsuen arrazoia.

Eta gure lana hori guztia frogatzen, demostratzen eta erakusten saiatu da.

Berbaldia bukatzeko, alabaina, ondorio zeharo praktikoa eta inolaz ere ez kaltegarria izango den bat nabarmendu nahi genuke *Gero*-ren gaurko irakurlearentzat, alegia: Axularren prosa behar bezala dastatu ahal izateko, idazleak *Gero* liburua atontzean eta idaztean erabili zituen mekanismoak jarri behar ditu martxan irakurleak. Ondorioz, irakurketa benetan atsegin eta emankor gertatuko bada, ezinbestekoa izango da Urdazubiko sarartuaren prosa, esaldiak, hitzak, hotsak, isilka bada ere, ahoskatuak izatea, garai bateko apaizek zegiten bezala. Jakina, irakurketa ozenki, belarriek entzuteko moduan egin dezana ez da agian bere sare aszetikoan eroriko, baina, ezbairik gabe, prosaren lilurak harrapatuko du.